

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

3230

IRAGARKIA, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baitira zenbait industriaren ingurumen-baimen integratuak berrikusteko espedienteak. Industria horiek disolbatzaile organikoak erabiltzen dituzte azalerak tratatzeko, egurraren eta egurretik eratorritako produktuen kontserbazioa produktu kimikoak erabiliz egiten dutenak barne.

Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren arabera, ingurumen-baimen bateratua behar da 1. eranskinean jasotako jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraikitzeko, muntatzeko, ustiatzeko edo lekualdatzeko, bai eta funtsezko aldaketak egiteko ere.

Ingurumen-baimen bateratuaren xedea da atmosfera, ura eta lurzorua ez kutsatzeko edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura murriztu eta kontrolatzeko baldintzak ezartzea, kutsadura prebentzeko eta kontrolatzeko sistema integratuak ezarriz; horrela, ingurumen osoa ahalik eta hoberen babestu ahal izango da.

Testu bategin horren 26. artikulua agintzen du ingurumen-baimen bateratuak ofizioz berrikusi behar direla instalazio baten jarduera nagusiari lotutako teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak argitaratzen badira. 2020ko abenduaren 9an, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu zen Batzordearen 2020ko ekainaren 22ko betearazpen-erabakia, zeinaren bidez ezartzen baitira azalerak disolbatzaile organikoen bidez tratatzeko (egurraren eta egurretik eratorritako produktuen kontserbazioa produktu kimikoak erabiliz egindakoa barne) erabilgarri dauden teknologia onenen gaineko ondorioak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauarekin bat etorritik.

Testu bategineko 26. artikuluan ezarritakoaren arabera, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzeko Erregelamenduak –zeina, aldi berean, industriako emisioei buruzkoa baita– (urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuak onartu zuen) 16. eta 15. artikuluetan arautzen du berrikusteko prozedura; gutxienez hogeit eguneko epea ezartzen du aldatu den hori jendaurrean erakusteko.

Adierazitako guztiagatik, eranskinean jasotzen diren espedienteak jendaurrean jarriko da hogeit egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egoki deritzeten alegazioak eta oharrak egin ditzaten. Espediente horiek Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>) argitaratuko dira, jendeak eskura izan ditzan.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 20a.

Zuzendaria ez dagoenez, otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuak ezarritakoa betez.

Ingurumen Jasangarritasunaren sailburuordea,
AITOR ALDASORO ITURBE.

ERANSKINA

AZALERAK TRATATZEKO DISOLBATZAILE ORGANIKOAK ERABILTZEN DITUZTEN INDUSTRIAK, EGURRAREN ETA EGURRETIK ERATORRITAKO PRODUKTUEN KONTSERBAZIOA PRODUKTU KIMIKOAK ERABILIZ EGITEN DUTENAK BARNE. INDUSTRIA HORIEN BERRIKUSPEN-ESPEDIENTEAK JENDAURREAN JARTZEN DIRA.

| Espedientea | Ingurumen-baimen bateratuaren titularra | Udalerrria |
|-------------|---|------------|
| AAI00137 | Amcor Flexibles España, S.L.U. | Lezo |
| AAI00193 | Irizar, S.Coop. | Ormaiztegi |